



**1312/2022 EBAZPENA, 2022KO UZTAILAREN 7KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BILBO-BASURTUKO ESI-ARI ATXIKITAKO GIZA BALIABIDEAK BERRANTOLATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ONARTZEN DIREN, GIZA BALIABIDE HORIEK BERRESLEITU BEHAR BAITIRA BIHOTZEKO KIRURGIAKO ZERBITZUA EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ERAKUNDE SANITARIOKO GURUTZETAKO UNIBERTSITATE-OSPITALEAN BATERATZEAREN ONDORIOZ.**

Bizkaiko helduen bihotzeko jarduera kirurgiko programatua eta Arabatik bidalitakoa bi ospitaletan egiten da gaur egun: Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla) eta Basurtuko Unibertsitate Ospitalean (Bilbo-Basurtuko ESla).

Bihotzeko kirurgiako baliabideak antolatzeke proiektuan onartutako plan funtzionalaren arabera, Osakidetza egoitza bakarrean antolatuko ditu GUOko eta BUOko bihotzeko kirurgiako zerbitzuen baliabideak, zerbitzuak oro har ondo funtzionatzen duela bermatzeko. Egoitza hori GUOn egongo da, eta hasiera batean Bizkaiko eta Arabako jarduera kirurgikoa bilduko du, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren ildo estrategikoei jarraituz. *(Especializazio-maila handiaren kontzentrazioa bultzatzea, korporazio-ikuspegiarekin, pazienteei kalitate handiagoko arreta eskaintzeko. Kontuan hartuko da zentro bat baino gehiagoko profesionalekin egitea.)* Helburu nagusia da kirurgia-tamaina eta -bolumena irabaztea eta berrikuntza teknologikoak txertatzea, Osakidetza espezialitate horren abangoardian egon dadin. Horretarako, zerbitzu bateratua eratuko da, eta zerbitzu horrek bere zerbitzu-zorro, organigrama eta kudeaketa-proiektu propioak izango ditu.

Bateratzearen bidez, aipatu plan funtzionalean jasota dagoen bezala, herritarrentzako arretaren kalitate eta efizientzia hobetuko dira bihotzeko kirurgiaren arloan, eta, horrez gainera, indikazioak homogeneizatuko dira, arreta-protokoloak bateratuko dira, Bihotz Kirurgiako Zerbitzuaren harremanak indartuko dira eta, azken batean, pediatrian eta helduaroan sortzetiko patologia tratatuko dituen talde bat sortuko da.

Horregatik guztiagatik, bateratzeak dakartzan aldaketetara egokitu behar da antolaketa-egitura. Egiturazko egokitzapen horiek BUOko profesionalei eragiten diete. Egokitzapenen ondorioz, baliabideak berrantolatzeke prozesu bat abiatu behar da giza baliabideen erabilera optimizatu ahal izateko, eta, prozesu horretan, langileen eskubide finkatuak bermatu behar dira.

BUOko profesionalak GUOra eramateko, zenbati irizpide orokor ezarri behar dira lekualdatze-prozeduraren objektibotasun eta gardentasun osoa bermatzeko eta prozesuan langileen eskubide finkatuak babesteko. Horretarako, segidako hainbat fase ezarri dira, berrantolatu beharreko langile kopuruaren eta inplikaturako zerbitzu-erakundeetan planteaturako premien arabera.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunaren 6. apartatuan adierazten denez, *"Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoan, lanpostu funtzional bat betetzea nahiz destino baten atxikipena lekuz aldatu ahal izango dira beste lanpostu funtzional batera edo beste destino batera osasun-barrutiaren lurralde berberaren barruan,*





*baldin eta interesdunaren kategoriako baldintza propioak mantentzen badira eta aurretiko kontraesaneko espedientea badago. Lekuz aldatzeko zergatiak hauek izango dira: lanpostuaren edukia aldatzea, deialdiko oinarrien baldintzak aldatu direlako, edo lanpostuan jarduteko gaitasunaren faltarengatik, eginkizunetan efikaziaz aritzea galarazten duten errendimendu eskasak hala erakusten badu. Era berean, lekuz aldatzeko kausa izan daitezke bai destino-unitatea bestela antolatzeko beharra, bai Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoan onartutako giza baliabideen planifikazioak eragindako efektiboak berriro asignatzeko beharra”.*

Era berean, 55/2003 Legeak, abenduaren 16koak, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzkoak, hau jasotzen du 36. artikuluan: *“Estatutupeko langileak, arrazoitutako ebazpena eman ondoren eta kasu bakoitzean ezartzen diren bermeekin, beren izendapenean ezarritako esparrutik kanpo kokatutako zentro edo unitateetara destinatu ahal izango dira, beren osasun-zerbitzuko giza baliabideak antolatzeko arau edo planek ezartzen dutenaren arabera, dagozkien mahaietan negoziatuta”.*

Azkenik, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 81.2 artikulua honako hau dio: *“Administrazio publikoek, beharrian funtzionalak edo zerbitzukoak direlata eta, funtzionarioak lekuz aldatu ahal izango dituzte, horretarako arrazoiak azalduta, beren destinoaz bestelakoak diren unitate, departamentu edo organismo publiko nahiz erakundeetara, betiere, laneko ordainsariak eta funtsezko baldintzak errespetatuta eta, hala dagokionean, langileak titular direneko lanpostuekiko atxikipena egokituta”.*

Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioari atxikitako lan-legepeko langileei dagokienez, Akordio horretan eta ebazpen honetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 9/2017 Instrukzioaren bidez, irizpide orokorrak ezarri ziren Ente Publikoari atxikitako baliabideen berrantolaketa-prozesuek eraginda lanpostu-berresleipenagatik destinoa aldatu behar duten Osakidetzako langileen mugikortasunerako.

Hala, ebazpen hau eman behar da Bilbo-Basurtu ESlari atxikitako giza baliabideak berrantolatu eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlari berresleitzeko prozeduraren objektibotasun eta gardentasun osoa bermatuko duten irizpide orokorrak ezartzeko. Horretarako, prozedura hori aztertu da Osasuneko Mahai Sektorialaren 2022ko maiatzaren 18ko bileran eta, ondoren, Bizkaiko Arreta Espezializatuko Langileen Batzordean eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Enpresa Batzordean.

Beraz, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11.b) artikulua xedatzen duenaren arabera, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, honako hau

## **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Bilbo-Basurtu ESlari atxikitako langile finko, bitarteko eta aldi baterako guztiak berrantolatzeko irizpide orokorrak onartzea. Irizpide horiek ebazpen honen I. eranskinean daude jasota, eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko bihotzeko kirurgiako zerbitzuak zerbitzu eta egoitza bakarrean (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlko Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean) bateratzearen ondorioz.

**Bigarrena.-** Unitateko langile guztiak mugitu behar diren unitateetan, lekualdaketa banan-banan jakinaraziko da alegazioak egin ahal izateko. Jakinarazpenerako, ebazpen honen II. eranskineko jakinarazpen-eredua erabiliko da.

**Hirugarrena.-** Langile guztiak lekualdatzen ez diren unitateetan, bi faseko prozedura abiaraziko da.

Lehenengo fasea borondatezkoa da, eta 10 egun naturalekoa izango da, ebazpen hau Bilbo-Basurtu ESlko intranetean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Fase horretan, Bilbo-Basurtuko ESlko langileek idatziz adierazi ahalgo dute Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlra mugitu nahi dutela. Horretarako, III. eranskineko eskabide-inprimaki normalizatua aurkeztu beharko dute.

Bigarren fasean, beharrezko edo nahitaezko prozedura gauzatuko da.

**Laugarrena.-** Destinoak esleitzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

I.- Hasierako fasean: Borondatezko berresleipena.

Borondatea izango da beti langileei destinoak esleitzeko lehen irizpidea antolaketa-aldaketek eragindako lekualdatzeetan.

Jatorrizko zerbitzu-erakundeko, zentroko, zerbitzuko edo unitateko pertsona batek baino gehiagok egiten badu xede zerbitzu-erakundearen, zentroan, zerbitzuan edo unitatean lanpostu bera betetzeko eskaera, esleipen hori honako lehentasun-ordena honen arabera egingo da, puntuazio handienetik txikienera:

1. Jabetzako lanpostua behin betiko atxikipenean duten langileak
2. Jabetzako lanpostua behin-behineko atxikipenean duten langileak
3. Titularrik gabeko lanpostu hutsa betetzen duten langile finkoak (izendapen askea, zerbitzu-eginkizunak, aldi baterako barne-sustapena edo zentroen arteko aldi baterako barne-sustapena edo goragoko eginkizunak)
4. Lanpostu hutsa betetzen duten bitarteko langileak
5. Aldi baterako langileak

II.- Bigarren fasean: Nahitaezko berresleipena.

Mugikortasunaren borondatezko fasean ezarritakoa aplikatu ondoren ez badira betetzen destinoko zerbitzu-erakundearen, zentroaren, zerbitzuaren edo unitatearen behar guztiak, prozesuan inplikaturako egituren arteko mugimendurako identifikatutako lanpostu guztiak bete arte, nahitaez mugiaraziko dira langileak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiruugarren arau komunaren 6. paragrafoan xedatutakoa bete ondoren.

Fase honetan, borondatezko aukera erabili ez duten pertsonen artean destinoak esleitzeko, honako lehentasun-ordena honi jarraituko zaio, puntuazio txikienetik handienera:

1. Aldi baterako langileak
2. Lanpostu hutsa betetzen duten bitarteko langileak
3. Titularrik gabeko lanpostu hutsa betetzen duten langile finkoak (izendapen askea, zerbitzu-eginkizunak, aldi baterako barne-sustapena edo zentroen arteko aldi baterako barne-sustapena edo goragoko eginkizunak)
4. Jabetzako lanpostua behin-behineko atxikipenean duten langileak
5. Jabetzako lanpostua behin betiko atxikipenean duten langileak

Aldi baterako langileak berresleitu behar badira, berresleipen hori izaera juridiko berarekin eta lotura-aldi berarekin egingo da, eta langile horiei Osakidetza behin-behineko estatutupeko langileei aplikatzen zaizkien arauak aplikatuko zaizkie. Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn, hasierako izendapenari erantsitako eginbide bat egingo da, eta, bertan, destino berria zerbitzu-erakunde berrian dagoela jasoko da.

Baremazioaren emaitza Bilbo-Basurtuko ESiko Zuzendaritza Gerentziaren ebazpen baten bidez argitaratuko da, interesa duten langileek alegazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako, langileek 10 eguneko epea izango dute, ebazpen hori aipatutako zerbitzu-erakundearen intraneten argitaratzen denetik aurrera.

Prozedura amaitutzat emateko, Osakidetzaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak ebazpen bat emango, eta horren arabera egingo da destinoen esleipena.

Nolanahi ere, bi ebazpenak eragindako zerbitzu-erakundearen intranetean argitaratuko dira eta interesdunei jakinaraziko zaizkie. Interesdunei egin beharreko jakinarazpen hori zerbitzu-erakunde berrian benetan lanean hasi baino 15 egun baldin lehenago egingo da gutxienez.

**Bosgarrena.-** Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn berresleitutako langileek enplegu-egoera berri izaten jarraituko dute, eta benetan betetzen zuten lanpostuari esleitutako ordainsari berak jasotzen jarraituko dute: ez da aldaketarik egongo prozedura honen ondorioz.

**Seigarrena.-** Prozedura honi lotutako Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko langile finkoek destinoa lortzeko lehentasuna izango dute, behingoagatik, jarraian zehaztutako bi mugikortasun-prozeduretako batera aurkezten badira:

1. Bilbo-Basurtuko ESian bere kategoría / lanpostu funtzional berdina lortzeko Osakidetzak deialdia egiten duen lehen prozesu orokorrean.
2. Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESian bere kategoría / lanpostu funtzional berdinerako lanpostuen deialdia egiten den lehen barne-prozesuan, lanpostu berrian lanean benetan hasten den egunetik aurrera.

Lehentasunez parte hartzeko eskubidea erabili arren destinoa lortu ez duten langileek lehentasuna izango dute destinoa lortzeko bigarren prozesuan. Nolanahi ere, langile horiei nahitaezko mugikortasunaren arloan Osasuneko Mahai Sektorialean adosten diren baldintzak aplikatuko zaizkie.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratuko dira borondatezko esleipenerako eskaerarako eskubidea prozeduraren lehen fasean erabiltzen duten langileak.

Bitarteko langileek, langile finkoek bezala, lehentasuna izango dute Bilbo-Basurtuko ESian eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESian sortzen diren lehenengo bitartekotzen eskaintzak jasotzeko.

**Zazpigarrena.**- Lanpostuak berresleitzearen ondorioz lantokia aldatzen zaien langileek eskubidea izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuko zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordainak arautzen dituen araudian kontzeptu horrengatik ezartzen diren kalte-ordainak jasotzeko. Nolanahi ere, salbuespen hauek egongo dira, eta, halakoetan, ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik:

1.- Aldaketaren ondorioz langileak bere bizitokian edo bizitokitik gertuago ematen baditu zerbitzuak. Izan ere, bizitokiaren eta zerbitzuak ematen dituen zentro berriaren arteko distantzia txikiagoa izango da bizi den tokiaren eta lehen lan egiten zuen zentroaren artekoarekin konparatuta.

2.- Lantoki-aldaketa interesdunak borondatezko fasean parte hartu duelako egin bada.


Dagozkion kalte-ordainak bi urtez ordainduko dira gehienez, langilea destino berrian lanean hasten denetik.

Berrantolaketaren eragina jasaten duten eta Basurtuko hitzarmena duten lan-legepeko langileek bidaia-gastuak konpentsatzeko eskubideari eutsiko diote, gastuok ordaintzeko egungo prozeduraren arabera.

**Zortzigarrena.**- Ebazpen hau honako hauei jakinaraziko zaie: Bilbo-Basurtuko ESiko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Langileen zuzendaritzei, Bizkaiko Arreta Espezializatuko Langileen Batzordeari, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Enpresa Batzordeari eta Osakidetza Hautaketa eta Horniketa Zuzendariordetzari eta Giza Baliabideen Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetzari.

**Bederatzigarrena.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 7(



Sin.: **MARIA ROSA PÉREZ ESQUERDO**  
**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**  
ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTORA GENERAL

## **II. ERANSKINA - JAKINARAZPEN INDIBIDUALA BIHOTZKO KIRURGIAREN ZERBITZUA BATERATZEA**

Bihotzeko kirurgiaren proiektuaren esparruan, Osakidetzak egoitza bakarrean berrantolatuko ditu Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko bihotzeko kirurgiako zerbitzuen baliabideak. Egoitza hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean egongo da, eta bertan egingo da hasiera batean Bizkaiko eta Arabako jarduera kirurgikoa, Sailaren eta Osakidetzaren ildo estrategikoetako bati jarraituz; hain zuzen, ildo estrategiko horren helburua da espezializazio-maila handiaren kontzentrazioa bultzatzea, korporazio-ikuspegiarekin, pazienteei kalitate handiagoko arreta eskaintzeko, eta horri esker, kirurgiako tamaina eta bolumena irabaztea eta berrikuntza teknologikoak txertatzea, Osakidetza espezialitate horren abangoardian egon dadin.

Bateratzeak dakartzen aldaketen egiturazko egokitzapenek Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko profesionaleri eragiten diete. Egokitzapenak egiteko, baliabideak berrantolatzeko prozesu bat abiatu behar da, giza baliabideen erabilera optimizatu ahal izateko, betiere langileen eskubide finkatuak bermatuta.

Bihotzeko kirurgiako zerbitzu bateratuak ondo funtzionatzen duela bermatzeko, beharrezkoa da zu, (adierazi, halaber, mugitzen den lanpostu-zenbakia, titularren, bitartekoen edo betetzen duen pertsonen kasuan) langile gisa, Bilbo-Basurtuko ESItik Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIta mugitzea. Hala ere, zure uneko kategoriaren berezko baldintzei eutsiko diezu.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen hirugarren arau komunaren 28. artikuluko seigarren paragrafoan jasotakoa betez, eta lekualdatze hori egin baino lehenagoko nahitaezko izapide gisa, idazki bidez jakinarazten dizugu 10 eguneko epea duzula, idazkia jasotzen duzuetik zenbatzen hasita, harekin ados zauden ala ez adierazteko, baita kasuan kasuko alegazioak egiteko eta dokumentuak edo justifikazioak aurkezteko ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren XXa

Sin.: **LUISA LARRAURI EREZOÑAGA**  
**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**  
**DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA**

### III. ERANSKINA

#### DESTINOA ESLEITZEKO ESKAERA

LANGILEAK BERRESLEITZEAGATIKO MUGIKORTASUN-PROZESUA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN XX(E)KO XXXXXXXAREN XX/2022 EBAZPENAREN BIDEZKOA.

#### 1. ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

<i>NANa</i>	<i>Izen-abizenak</i>
<i>Lan-harremana (estatutupekoa, funtzionarioa, lan-legepekoa)</i>	<i>Zerbitzu-erakundea / Zentroa / Zerbitzua / Unitatea</i>
<i>Lotura juridikoa (finkoa, bitartekoa)</i>	<i>Lanpostu funtzionala</i>

**ESKATZEN DUT:** Giza baliabideak berrantolatzeko prozesu honetan parte hartzea eta, prozesu horren arabera, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESira atxikitzea.

XXXXX, 2022ko XXXaren XX(a).

Sin.:

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**



#### IV. ERANSKINA

#### MEREZIMENDUEN BAREMOA

LANGILEAK BERRESLEITZEAGATIKO MUGIKORTASUN-PROZESUA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN XX(E)KO XXXXXXXXAREN XX/2022 EBAZPENAREN BIDEZKOA.

Langileak berresleitzeagatiko borondatezko fasean nahiz nahitaezko mugikortasunean, honako **irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

I.- Lan-esperientzia Kategoria eta lanpostu funtzional berean emandako zerbitzuak, deialdiaren ebazpena argitaratzen den egunera artekoak, Osakidetzako azken lekualdatze-lehiaketan xedatutakoaren arabera.

II.- Euskara. Indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

Ofizios zenbatuko dira Osakidetzako Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak. Hautagaiek erregistro horretan jasota ez dauden beste merezimendu batzuk badituzte (Osakidetzatik kanpo lan egindako denbora, beste hizkuntza-eskakizun bat, etab.), garaiz eta behar bezala egiaztatu beharko dituzte.

Izangaien artean berdinketa egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna dagokien kategoria eta lanpostu funtzionaletan, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan araututakoari jarraituz.

Berdinketak jarraitzen badu, atal bakoitzean eta horien hurrenkeraren arabera guztira punturik gehien duen izangaiaren alde erabakiko da.

Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, zerbitzu aktiboan edo erreserban duen plazan egun gehien daukan izangaiaren alde erabakiko da.

Azkenik, aurreko irizpideak aplikatu ostean oraindik berdinketa desegin ez bada, lehenago jaino denaren alde erabakiko da.

Berdinketa hausteko irizpide horiek prozeduraren bi faseetan aplikatuko dira, baina horietako bakoitzean ezarritako lehentasun-hurrenkerari egokitu beharko zaio aplikazio hori.